

## Bilingual: Life and Reality

FRANÇOIS GROSJEAN

Cambridge, MA: Harvard University Press, 2010, xix + 276 or.

Liburuaz hitz egiten hasi baino lehen, uste dut merezi duela liburuaren egilearen aurkezpena egitea. François Grosjeanek bere irakasle, ikertzaile eta idazle lan ia guztia elebitasunari eskaini dio. *Life with two languages*, berak 1982an argitara emandako liburua, klasikotzat daukate arloan. Badu beste libururik ere elebitasunaren gainean, 2008ko *Studying bilinguals* adibidez. Idatzi duen azkena orain hemen aurkezten dugun hau da. Kontaezinak dira, bestalde, gaiari eskaini dizkion lanak aldizkari eta askoren arteko liburuetan. Cambridge University Press-ek ateratzen duen *Bilingualism: Language and Cognition* aldizkariaren sortzaileetako ere bada, eta zuzendaria ere izan da hainbat urtetan. Grosjean jauna goiz hasi zen, 1970eko hamarkadaren aurreneko urteetan, elebitasunaren fenomenoaz aztertzen. Arloan interes pertsonala zuela zioen 2002an egin zioten elkarrizketa batean<sup>1</sup>: bera nor zen ulertzen hasteko modu bat izan omen zen. Parisen jaio zen eta, ama britainiarra bazuen ere, etxean frantsesez egiten zioten; horrela, lehen urteetan ez zen elebiduna izan. Baina, zortzi urte zituela, Suitzako barnetegi ingeles batera bidali zuten eta handik, hamalau zituela, Ingalaterrako beste barnetegi ingeles batera. Aldaketa hori badirudi oso zaila izan zela kulturaren ikuspegitik eta, berak dioenez, ez zen behin ere iritsi bere burua erabat britainiartzat edukitzera. Hala ere, hemezortzi urterekin Frantziara itzuli zenean, Pariseko Unibertsitatean ikasten hasteko, ez zen dagoeneko frantsesa sentitzen eta gogorra egin zitzaion aldaketa. Lanak eman zizkion, nonbait, frantses hizkuntzara eta, batez ere, frantses kulturara egokitzeak. Beno, bada, bai hizkuntzan eta bai kulturari bizi izan zituen aldaketa eta gorabehera guzti horiek eraman zuten Grosjean elebitasunaz, eta elebidunez, interesatzen. Lehen zazpi urteetan elebakarra izan zen, gero elebidun bihurtu zen: hasieran, hamaika bat urtez, ingelesa izan zen beraren hizkuntza nagusia eta frantsesa ondoren. Beste bi hizkuntza aldaketa ere izan ditu geroztik: lehenbizikoa Estatu Batuetara joan zenean, hogeita zortzi urte zituela, eta bigarrena berrogei urterekin Europara itzuli zenean, frantsesez egiten den Suitzako eskualdera. *Bilingual: Life and reality* liburuan, izen-

---

<sup>1</sup> Hona hemen elkarrizketa hori aurki daitekeen lekua: [http://www.francoisgrosjean.ch/interview\\_fr\\_html](http://www.francoisgrosjean.ch/interview_fr_html)

burua «Language across the lifespan» duen 8. kapituluaren hasieran, autoreak bere kasua erabiltzen du elebidunen hizkuntza-historia argitzeko. Autoreari dagokiona bukatzeko, honako hau esango nuke: bere bizitzan gauzak gertatu diren bezala gertatzeak aukera eman diola elebitasunaren alderdi ugariak ezagutzeko, baita jakiteko ere zer den, elebakarra izan eta gero, elebidun bihurtzea.

Autorea aurkeztu ondoren, ikus dezagun zer aurki dezakeen irakurleak Grosjeanen liburu berri honetan. Ezer baino lehen, *Bilingual: Life and reality*ri buruz egin daitezkeen galdera batzuei erantzuten saiatuko naiz; honako hauei, hain zuzen: zergatik beste liburu bat elebitasunaren gainean, nori zuzendua dagoen, zein diren autorearen helburuak, nola dagoen antolatua. Liburu hau idazteko arrazoiari dagokionez, Grosjeanek esaten digu gogoan duela Pariseko Unibertsitatean estudiantea zela berari gertatu zitzaiona. Ingalaterratik etorri berria, zailtasunak zituen hizkuntzarekin eta hainbat galdera sortzen zitzaizkioan bizi zuen egoeraz: Elebiduna al zen bera? Zer da elebitasuna? Bestalde, zer zen bera, ingelesa ala frantsesa? Horrela, bere elebitasuna eta kultura-bitasuna onartzeko ahaleginean, gai horri buruzko liburuaren baten bila ibili zen eta aurkitu zuen gauza bakarra liburu jakintsu luze eta ulergaitzak izan ziren. Ez zuen bat bakarrik ere aurkitu bere orduko galdera eta kezkei erantzuten zienik. Bada, orduan bila ibili zen liburu erraz eta oinarrizkoa idatzi nahi izan du orain, urte asko pasa eta gero. Erraza eta oinarrizkoa, zeren ez baitu idatzi ohiko irakurlearentzat, hau da, unibertsitate inguruan dabilen irakurlearentzat, baizik jende gehienarentzat. Elebitasunean interesatuak dauden irakurleak ditu gogoan autoreak, interesatuak elebidunak direlako edo, modu batean edo bestean, elebidunez arduratzen direlako: irakurle arruntak, estudiantek, beren haurrak elebidun hazi nahi dituzten gurasoak, haur elebidunekin lanean ari diren profesionalak baztertu gabe beti ere. Horik darabilen estilo ulergarria; hortik, baita ere, liburuan hain ugariak diren anekdotak ere.

Helburuei dagokienez, bi nabarmentzen ditu Grosjeanek. Elebitasunak aurkezten dituen alderdi edo aurpegiak modurik erraz eta argienean azaltzea eta, hori egitean, fenomeno horren inguruan hedatuta dauden hainbat ideia oker ezeztatzea da lehenbizikoa. Bigarrena, berriz, elebidunei liburu bat eskaintzea nor diren esaten diena eta berak bezala elebiduna den norbaitek idatzia dena. Helburu hau aurrekoa bezain garrantzizkoa iruditzen zaio autoreari; izan ere, elebidun asko omen dago bere burua elebiduntzat ez daukana eta, bere hizkuntza-gaitasuna dela eta, gustura ez dagoena.

Antolaketa den bezainbatean, bi partetan banatua dago liburua: lehenbizikoa heldu elebidunez ari da eta bigarrena haur elebidunez. Azken hau sei kapituluz dago osatua; hura, aldiz, hamahiru kapituluz. Kapituluak laburrak dira, gaia jendarteratzeko helburua duen liburu bati dagokion eran. Arrazoi

beragatik, irakurleak ez du oin-oharrik aurkituko; ohar guztiak liburuaren azkenera bidali dira. Gai eta izen aurkibide bat ere bada liburuan, ez luzea baina bai arreta handiz egina.

Bi parte edo atal ditu, beraz, liburuak. Ikus dezagun zertaz ari diren lehen ataleko kapituluak. Hasteko, autorea saiatzen da galdera honi erantzuten: Zergatik dago elebiduna den jendea? Munduko hizkuntzen ugaritasuna, hizkuntza desberdinetako jendeen arteko harremanak ezinbesteko egiten dituen, jendea lurralde batetik bestera joatea hainbat arrazoiengatik (hala nola, sale-rosketa, negozioak, arazo politiko edo erlijiosoak, ekonomiko edo sozialak), hezkuntza eta kultura: horiek dira zergatik dauden elebidunak esplikatzen duten faktoreetako batzuk. Elebidunak izateko arrazoen kontu horrek berehala galdera hau dakar: zein da elebitasunaren hedadura gure munduan? Galdera hau dela eta, lehen mitoa aurkezten du Grosjeanek, lehen mitoa edo ideia okerra, bera gezurtatzen saiatzen dena, liburuan zehar sakabanatu dituen beste mito sail bat bezala. Baina jendearen mito edo uste oker horietaz geroago ariko gara.

Beste kontu bat da nor den elebiduna: bi (edo gehiago) hizkuntza oso ongi dakizkiena, ala, besterik gabe, bi (edo gehiago) hizkuntza, maila berean ez bada ere, erabiltzeko gai dena eta erabiltzen dituen<sup>2</sup>? Horri lotua dago elebidunaren hizkuntzen funtzioen arazoa: zertarako erabiltzen duen hizkuntza bakoitza, zer testuingurutan eta abar. Hizkuntzen funtzioez ari dela, garrantzi handia ematen dion kontzeptu bat nabarmentzen du autoreak, «osagarritasun printzipioa» esaten diona, 'complementarity principle' ingelesez. Hona nola ulertzen duen berak kontzeptu hori: «Beren hizkuntzak gehienetan helburu desberdinetarako, bizitzaren eremu desberdinetan eta jende desberdinekin eskuratzen dituzte eta erabiltzen elebidunek. Maiz bizitzaren alderdi desberdinek hizkuntza desberdinak eskatzen dituzte» (29. or.). Ukipen-egoeretan gutxitan gertatzen da bizitzaren aurpegi edo alderdi guztiek hizkuntza bera eskatzea (bestela ez bailitzateke izango elebidunik), edo beti bi hizkuntzak eskatzea (biak lanean, biak etxean, biak lagunartean ...). Printzipio horrek esplikatuko luke zergatik elebidunek gutxitan duten gaitasun bera eta erabatekoa beren hizkuntzetan, hauetako bakoitzaren premia eta erabilera desberdinak baitira eskuarki.

Elebiduna aurkitzen den egoera zein den, hau da, elebidunaren hizketakideak elebakarrak ala bera bezala elebidunak diren, edo, autoreak sartzen duen kontzeptua erabiliz, haren «hizkuntza-modua» zein den ('language mode' in-

<sup>2</sup> Hona Grosjeanek ematen duen elebidunen definizioa: «Elebidunak, beren eguneroko bizitzan bi edo gehiago hizkuntza (edo dialekto) erabiltzen dituztenak dira» (4. or.). Erabilera azpimarratzen du, hortaz, ez hizkuntza-gaitasuna. Bestetik, dialektoak ere kontuan hartzen ditu. Azkenik, bi hizkuntza baino gehiago erabiltzen dituenari ere elebiduna esaten dio, hitz hori «eleaniztun» hitza baino erabiliagoa delako.

gelese), elebakarra ala elebiduna, horren arabera erabakiko du elebidunak zein hizkuntza hautatu. Kontzeptu horrek elebidunaren hizkuntzen aktibazio-egoera adierazten du, egoera horretan eragina dutelarik gisa honetako faktoreek: non dagoen, norekin, zertaz ari diren eta abar. Hizketakideak elebakarrak direnean, hizkuntza bat bakarrik edukiko du aktibatuta, erabiltzen ari direna. Orduan elebiduna hizkuntza-modu elebakarrean dagoela esaten du Grosjeanek. Baina eman dezagun elebiduna beste elebidun batekin ari dela hizketan eta azken hau hark erabiltzen dituen bi hizkuntzen jabe dela; orain bi hizkuntzak egon daitezke aktibatuta. Egoera honi hizkuntza-modu elebiduna esaten dio autoreak. Bestalde, elebidunaren hizkuntza-erabileran gerta daitezkeen hainbat fenomeno ere aztertzen dira liburuan: kode-aldaketa, mailegua eta interferentzia, adibidez. Azentu edo doinuaren arazoa ere ukitzen da bertan, autorearen arabera oso normala dena elebidunarengan.

Beste arazo bat, autoreak lehen parte honetan kontuan hartzen duena, elebidunaren hizkuntzen gorabeherak dira, premien arabera batek gora eta besteak (edo besteek) behera egin dezaketela alegia, autoreari berari neurri batean gertatu zitzaion bezala bizilekua aldatu zuen bakoitzean. Batzuetan, galdu ere egin daiteke hizkuntzetako bat, edo atzendurik gelditu gutxienez. Zoritzarrez, ez dira gutxi horrelako kasuak gure artean.

Elebitasunari buruzko jarrera eta sentimenduak ere aztertzen ditu Grosjeanek, bai elebidunenak berenak eta bai elebakarrenak ere. Zenbait elebidunek, abantailak ez ezik, desabantailak ere ikusten dizkiote elebitasunari, hizkuntzetako bat bestea bezain ongi ez hitz egiteak lotsa ematen dienean bereziki; elebakarrei dagokienez, elebidunaren estatusak zerikusi handia du horiek hartzen duten aldeko edo kontrako jarreran. Bestalde, Europako lurralde txikietan eta Afrika eta Asiako lurraldeetan eleaniztuna izatea ohikoa bada ere, autorearen iritziz Amerikako Estatu Batuetan eta beste lurralde handi batzuetan (Ingalaterra eta Frantzia aipatzen ditu) ez dituzte oso gogoko bi hizkuntzaren jabe direnak. Grosjeanek Frantzia aipatzen duenez, zilegi bekit hona ekartzea Koldo Izagirreraren *Autopsiarako frogak* liburuan irakurri berriak ditudan François Bayrou Frantziako politikariaren hitzak, ongi adierazten baitute nola ikusten diren Parisen elebitasuna eta kultura-bitasuna: «Inork bi hizkuntza edukitzeak, beraiek bakarria dutenean, inork bi kultura edukitzearen pribilegioa aldarrikatzeak, beraiek bakarria dutenean, gutxitan ikusi ditudan bezalako bortizkeriazko sentimenduak sortzen ditu» (179. or.). Kultura-bitasunaz ere badihardu Grosjeanek kapitulu batean. Elebiduna izateak ez dakar berekin, noski, kulturabiduna izatea, baina elebidun askoren kasuan hala gertatzen da. Horrek bide ematen dion arazoa identitate kulturalarena da: zein kulturatakoa sentitzen den kulturabiduna bera eta zein kulturatakotzat daukaten besteek.

Honako galdera hauei ere erantzuten zaie liburuan: Hizkuntza batetik bestera pasatzean, aldatu egiten al da nortasuna? Zein hizkuntzatan pentsatzen

dute eta egiten dute amets elebidunek? Bestetik, nola adierazten dituzte beren emozioak? Liburuaren lehen ataleko azken bi kapituluak idazle elebidunez, hau da, bi hizkuntzatan idazteko gai direnez, eta elebidun berezietz ari dira. Elebidun bereziak dira bigarren hizkuntza baten irakasleak, itzultzaileak eta interpreteak.

Liburuaren bigarren partean autoreak zer eskaintzen digun ikustea dago-kigu orain. Esan dugu gorago haur elebidunak dituela aztergai parte honek. Lehenbizikoa baino askoz laburragoa da parte hau; ulergarria da hala izatea, zeren hurrei eta horien zaintzaileei elebitasunak jartzen dizkien arazo bereziak, eta horiek bakarrik, hartzen baitira kontuan hemen. Jende elebidunek autoreari nolako mirespena eragiten dioten adierazten du liburuko aurreneko esaldiak (xiii. or.). Bada, haur elebidunak direla eta, berriz aitortzen du autoreak harritura uzten dutela bigarren edo hirugarren hizkuntza batean hitz egiteko gauza diren hurrek. Nola lortzen dute hori? Nola egiten dira haurrak elebidun? Bi hizkuntzaz aldi berean jabetzea da modu bat; dena dela, maizago gertatzen da aurrena bat eta gero bestea eskuratzea. Etxean bi hizkuntza erabiltzen badira ere, bata amak eta bestea aitak adibidez, garrantzi handia izango du kanpoan egiten den hizkuntzak. Berezi garrantzitsua haurra eskolara hasten den unea izango da eta han erabiltzen den hizkuntza. Haurrentzat, azpimarratzen du Grosjeanek, gauza erraza da elebidun bihurtzea, baina baita elebidun izateari utzi eta elebaker bihurtzea ere. Horren azalpena ere ematen digu autoreak: hizkuntza baten garapena lotua dago hizkuntza hori beharrezkoa izateari. Erabakigarria dela dio eskolaren eta komunitate zabalagoaren rola. Horrela, gutxiengoaren hizkuntzak ez badu eskolak edo komunitateak haren alde egitea lortzen, gero eta pisu eta garrantzi gutxiago izango du; hori erabat baztertzen ez bada, bereziki gehiengoaren hizkuntza haurraren bizitzako alderdi guztietara zabaldua dagoenean. Sostengua behar duen hizkuntzari buruz jendeak duen jarrerak ere, guraso, irakasle eta adinkideenak bereziki, eragin handia du haurraren.

Haurrak nola bihurtzen diren elebidun aztertzen du gero autoreak. Bi elebitasun mota bereizten ditu: aldi bereko elebitasuna eta hurrenez hurrengo elebitasuna. Lehenbizikoan, hizkuntzaren hasieratik beretik bi hizkuntza (bartzuetan hiru ere bai) bereganatzen ditu haurrak; bigarren elebitasun motan –eta hau da ohikoena–, haurrak aurrena bat ikasten du, etxean, eta bestea eskolan edo kanpoko komunitatean. Haurraren elebitasunaren hainbat alderdi linguistiko ere ukitzen ditu Grosjeanek, hala nola: hizkuntzetako baten nagusitasuna eta horren ondorioak, aldian aldiko hizkuntza-modura (modu elebaker nahiz elebidunera) egokitzea, hurrek erraz ikasten dutena, hizkuntzak «nahastearen» arazoa, haurren gaitasuna interprete moduan aritzeko, eta, azkenik, hizkuntzekin jolastea. Hurrengo gaia, liburuan, beren haurrak elebidun izatea nahi duten gurasoek har ditzaketen estrategiak dira. Bost estrategia daude autorearen arabera: «pertsonek bat-hizkuntza bat» estrategia, «etxean–

etxetik kanpo» estrategia<sup>3</sup>, «hizkuntza-bat-aurrena» estrategia, «hizkuntza-aldia» estrategia (ordu jakin batzuetan bat, beste batzuetan bestea) eta, azkenik, «aldizkatze-librea» estrategia. Estrategia bakoitzaren alde onak eta txarrak ere azaltzen dira bertan. Familiak haurrari laguntzea ezinbestekoa da, noski, baina familiak berak ere behar du beste batzuen sostengua, ahaide eta lagunea, adibidez, baita haurraren bizitzan rol berezia dutenena ere, hala nola: irakasle, mediku eta psikologoena. Guraso askoren kezka omen da ea elebitasuna kaltegarri izango den beren haurraren edo haurren garapenerako. Hogeigarren mendearen lehen erdiko ikerketek ondorio negatiboak aurkitu zituzten, baina ikerketa haiek akats metodologikoak zituzten. Grosjeanek bere *Life with two languages* liburuan proposatzen zuena gogorarazten digu, hots, elebitasunak berez ez duela ondorio garrantzitsurik, ez positiborik ez negatiborik, haurren garapen kognitibo eta intelektualean. Bestalde, elebitasunak ez du inolako hizkuntza-nahasmendurik eragiten. «Hezkuntza eta elebitasuna» da azken kapituluaren izenburua. Bi kasu bereizten ditu autoreak: helburua elebitasuna ez denekoa eta helburua elebitasuna denekoa. Lehenbizikoan, hizkuntza eskola-ordu jakin batzuetan irakasten den gai bat da, beste gai batzuk bezala, baina nekez iristen da komunikatzeko tresna izatera; bigarrenean, hainbat programa erabiltzen dira, murgiltze-programa eta beste batzuk, denek xede hau dutenak: hezkuntza adostea elebitasunarekin.

*Bilingual: Life and reality*ko gaien berri eman ondoren, nahi dut zerbait esan autoreak liburuan zehar barreiatu dituen mitoei buruz. Mitoak esaten die elebitasunari buruzko uste okerreiei eta, mito horiek aipatzen baditu, gezurtatu nahi dituelako da. Hamahiru bat sartu ditu liburuan. Hemen, horietako batzuk bakarrik iruzkinduko ditugu. Mito edo ideia oker bat da elebitasuna fenomeno bakana dela. Ez dago horrelakorik. Mundu osoan zabaldurik dagoen fenomeno da. Egia esan, ez da erraz munduan zenbat elebidun dagoen jakitea. Dena dela, autorearen arabera, munduko biztanleen erdiak baino gehiago elebidunak direla kalkulatzeko omen da. Elebidunek beren hizkuntzetan gaitasun bera dutela da beste ideia oker bat, oso zabaldua dagoena. Egia, ordea, honako hau da: elebidunek hizkuntza bakoitzean lortzen duten gaitasun-maila hizkuntza horren premiaren araberkoa da eta, askotan, hizkuntzetako bat nagusi edo menderatzailea da eta bestea mendeko, edo bat menderatzaile arlo batzuetan eta bestea beste batzuetan.

Beste mito baten arabera, elebidunak itzultzaile onak dira. Bada, ez; sarritan erabilera-eremu jakin batzuetako hiztegia eta esaerak falta zaizkie. Azentu edo doinuari dagokion uste okerra ere aipatzen du Grosjeanek. Uste horren arabera, benetako elebidunak azenturik gabe mintzatzen dira beren hizkun-

---

<sup>3</sup> Estrategia hau hobesten du eta hau aholkatzen die autoreak beren haurrak bi hizkuntzarekin hazi nahi dituzten gurasoei: etxean hizkuntza bat erabiliko litzateke, normalean gutxiengoaren hizkuntza, eta beste hizkuntza etxetik kanpo.

tzetan. Baina, autoreak dioenez, hizkuntzetako batean «atzerriko» azentua izatea gauzarik ohikoena da; azenturik ez izatea, aldiz, salbuespena. Bestalde, ez da egia elebidun guztiak bi kulturaren jabe direla, hau da, bi gizarte-talderen hizkuntzez gainera horien ohiturak, balioak eta abar bere eginak dituztela. Egia ez den bezala elebidunek bi nortasun dituztela.

Haurrei dagokienez, guraso askorentzat kezkabide da batzuek defendatzen duten ikuspuntua, hots, elebitasunak atzeratu egingo duela hizkuntzaz jabe-tzea haur txikiengan. Mito hau oso zabalduta egon zen aurreko mendearen lehen erdian, baina ez dago ondorio hori frogatzen duen ikerketarik. Beste beldur bat da elebidun hazitako haurrek beren hizkuntzak nahasiko dituztela beti. Baina egia beste bat da; izan ere, egoera zein den, haurrak hartara egokitzen dira. Egoera elebakarra denean, hau da, hizketakideak elebakarrak direnean, horien hizkuntza erabiliko dute; beste elebidun batzuekin daudenean, orduan bai gerta daitekeela kode-aldaketa erabiltzea. Azkenik, elebitasunak haurren garapen kognitiboan ondorio negatiboak dituelako ustea aipatu behar da. Uste okerra, noski, zeren azken urteotako ikerketek erakutsi baitute haur elebidunak elebakarrak baino hobekak direla adimen-lan batzuetan.

Bukatzeko, liburuari buruzko iritzia. Hasteko esan behar da «Edward Sapir Book Prize 2010» sarirako izendatutako 24 tituluaren artean zegoela, azkenean saria beste bati eman bazioten ere. *Choice Reviews Online* aldizkari elektronikoa ere, bestalde, 2010eko lan akademiko onenen, «Outstanding Academic Titles» direlakoan, zerrendan sartu zuen Grosjeanen *Bilingual: Life and reality*. Izen handiko zerrenda da hori eta bikaintasuna balioesten du, bikaintasuna bai gaia aurkezteko moduan eta bai erudizioan ere. Erudizioari dagokionez, ordea, esan beharra dago autoreak ez duela jakintsu arrandiarik egingen. Garbi ikusten da gaian oso ongi jantzia dagoela, baina baita trebea dela ere gauzak edozeinek ulertzeko moduan esaten. Estilo erraz eta dotorean dago idatzia liburuak, zentzuz konbinatuz ikerketa, elkarrizketa, autobiografia eta autore elebidunen adibide interesgarriak. Liburuak euskarara itzulita ikusi nahi nuke. Merezki du gaiak eta merezi du liburuak. Horretaz nork arduratu beharko lukeen esatera ere ausartuko naiz: nire ustez, Euskal Herriko Unibertsitateari dagokio lan hori, ZIO bildumari zehazkiago. Goi-mailako dibulgaziokoak, irakurtzeko atseginak, arrakasta izan dutenak eta adituak ez diren baina gaitzientifikoetan interesa duten irakurleei zuzenduta dauden liburuak osatzen omen dute bilduma hori. Nik esango nuke Grosjeanen liburuak ezin hobeki betetzen dituela baldintza horiek. Aurrena, noski, liburuak eskuratu egin beharko du unibertsitateak, bibliotekako katalogoan behinik behin ez baita ageri oraindik. HARE liburutegiko alea erabili dut nik.

Pello Huizi  
ILCLI